

Ikerketa hau, berez, 73. soziometroaren parte izan behar zen, baina Covid-19aren krisia lehertzeak ikerketa bertan-behera utzi behar izatea ekarri zuen.

Ondorioz, landa lana martxan egon zen egun bakarrean jasotako 565 erantzunekin familiari buruzko azterketa hau argitaratzea erabaki genuen, eta 73.

soziometroa aurreragorako uztea.

Lagina ohiko Soziometroetakoa baino dezente txikiagoa denez ez ditugu aldagai soziodemografikoen arabera gurutzaketak egin.

Arrazoi berdina dela eta tentu handiz irakurri behar dira filtroak dituzten atalak, bereziki 4. eta 5. puntuak.

Azkenik, landa lana martxoaren 12koa denez, jasotako iritziak konfinamendua baino lehenagokoak dira noski.